



**Deialdia, 2023ko urtarrilaren 11koa, hezitzaileen ordezkogaien zerrendetan izena eman eta barematzeko/birbarematzeko prozedurari hasiera emateko dena.**

## **SARRERA**

Haurreskolak Partzuergoaren Lan-Hitzarmenaren 18. artikuluan jasotakoari jarraituz, hezitzaile ordezkogaien zerrendak urtero eguneratuko dira, zerbitzu berriak emateko aukera aztertzeko eta aurrez egindako ordezkapen aukerak aldatu ahal izateko. Halaber, Zuzendaritza Batzordearen 2019ko uztailaren 8ko 03/07-2019 Erabakiaren, Haur Hezitzaileen ordezkapenak egiteko eta plaza hutsak betetzeko araudi berria onartzen duenaren 4. artikuluan ezarrita dago urtero baremazio-birbaremazio prozesuarekin batera ordezkoen zerrendetan izena emateko epea irekiko dela.

Aurrekoarekin lotuta, Zuzendaritza Batzordearen 2021eko abenduaren 22ko Erabakiaren bidez, Haurreskolak Partzuergoko haur hezitzaileen ordezkapen zerrendak ireki eta baremazioarako irizpideak onartu ziren, baita prozesuaren deialdia egitea ere, eskabideak aurkezteko tokia eta modua zehaztuz.

Zerrendetan izen-eman nahiz baremazio/birbaremazio prozesua **on-line izango da soilik. Hezigune ataritik**, hau da, birbaremazioarako gaitutako aplikaziotik bertatik egin beharko dira beharrezko aldaketa guztiak, eta baita meritua berriak alegatu eta egiaztatu ere. Horretarako lagungarri den **gidaliburu** bat izango izango da eskuragarri.

## **DEIALDIA**

- 1.- Deialdi honen helburua da Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen ordezkogaien zerrendetan izena eman eta barematzeko/birbarematzeko urteroko prozedurari hasiera ematea.
- 2.- Haurreskolak Partzuergoko haur-hezitzaileen zerrendan izena emateko edota lehendik izena emanda dauden hautagaiek meritua berriak alegatzeko **eskaerak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 16tik 27ra bitartean** izango da.
- 3.- **Eskabidea on-line** egin beharko du interesatuak **HEZIGUNE atarian erabiltzailea eta pasahitza sartuta. Paperean egindako eskaerarik ez da onartuko.**
- 4.- Epe horretan, zerrendan dauden ordezkogaiak orain arte izandako ordezkapen aukera eta merituen fitxa ikusgai izango dute. Lehen aldiz izena ematen dutenek ez dute fitxarik izango.



5.- Norberaren fitxan dauden merituak ez dira berriro aurkeztu behar. **Meritu berriak edota alegazioak Hezigune ataritik egin behar dira**, birbaremaziorako gaitutako aplikaziotik bertatik. **Ez da paperean, tramitagune bidez, edo Hezigune ataria ez den beste bide batez aurkeztutako dokumentaziorik onartuko**, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena arautzen duenaren, 14. artikuluari jarraituz.

**Hezkuntza Sailean irakasle gisa emandako zerbitzuak alegatzen dituzten izangaiei ofizioz barematuko zaizkie horretarako espresuki baimena ematen badute. Dagokion baimena eman ezean, erakunde eskudunak sinatutako zerbitzu-orria aurkeztu beharko da alegatutako zerbitzuak egiaztatzeko.**

6.- Hautagaiak zerrendan sartzeko baldintza orokorrak, nahiz titulu eta hizkuntza eskakizunaren baldintzak bete eta egiaztatuta izan behar dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen edo betiere eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

7.- Eskakizunak eta alegatutako merituak Zuzendaritza Batzordearen 2021eko abenduaren 22ko Erabaki bidez, Haurreskolak Partzuergoko haur hezitzaileen ordezkapen zerrendak ireki eta baremaziorako irizpideak onartzekoan ezarritakoaren arabera barematuko dira.

8.- Lan-esperientzia 2022ko abenduaren 15era arte zenbatuko da.

9.- Adierazitako baremazio irizpideak aplikatu ondoren hautagaien artean puntuazio berdinketa badago, berdinketa hori hausteko, abizenen eta izenaren orden alfabetikoa erabiliko da azken irizpide moduan. Hezkuntza Sailean zozkatzen den letra erabiliko da, aurten <<J>> letra izan da, eta puntuazio bereko hautagaiak letra horretatik hasiko dira alfabetikoki ordenatzen.

Eibar, 2023ko urtarrilaren 12a

Elena Aizpuru Segurola  
GERENTEA